ERTIBIL BIZKAIA 2011

Ikus-Arteen erakusketa ibiltaria
Muestra itinerante de Artes Visuales

edizioa
XXVIII
edición

2011ko maiatzaren 26tik abenduaren 29ra
Del 26 de mayo al 29 de diciembre de 2011

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Aurkibidea / Índice

Aurkezpena / Presentación

M. Josune Ariztondo Akarregi
Kulturako Foru Diputatua / Diputada Foral de Cultura

Lan irekiak: galderak gehiago dira erantzunak baino / Obras abiertas: Más preguntas que respuestas

Xabier Sáenz de Gorbea

Ibilbidea / Itinerario

Artista sarituak / Artistas premiados

Alain Martinez Urrutia (1go. Saria) 14
Miriam Isasi Arce / Unai Requejo Mezo (2garren. Saria) 16
Manu Uranga Aizpurua 3garren. Saria 18

Artista aukeratuak / Artistas seleccionados

Nadia Barkate Barreiro 22
Juan Manuel De La Rica Olaso 24
Saray Blades 26
Usoa Fullaondo Zabala 28
Alvaro Gil Soldevilla 30
Abian González Francés 32
Eduardo Hurtado Lamas 34
Irune Jimenez Orbea 36
Ibai León Azcarate 38
Maite Leyun Orrico 40
Jon Macareno Ramos 42
Silvia Ocejo Lopez De Guereña 44
Jon Otamendi Aginagalde 46
Mikeldi Pérez Urquijo 48
Ion Mikel San Millan Azcona 50
Lander Tellechea Armendariz 52
Diego Vivanco Gutierrez 54

Artista parte-hartzaileak / Artistas participantes

Aurkezpena / Presentación

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak ERTIBIL BIZKAIA erakusketa aurkezten du, Sala de Exposiciones Rekalde sozietate publikorekin eta Getxo, Bermeo, Lekeitio, Igorre, Larrabetzu, Santurtzi, Arrigorriaga, Ermua, Zalla eta Gernika-Lumo udalekin batera.

Aurten, ikus-arteen erakusketa ibiltariaren XXVIII. edizioa da, eta asmo sendoa dauka gure lurralde historikoan artista bizkaitar berrien sormen ekimenak bultzatu eta sustatzeko haien ibilbide artistikoetako lehenengo urratsetan, hain zuzen, garrantzitsuagoak direnean sortzaileen etorkizuna zehaztuko duten laguntzak. Erakusketaren helburua ere bada ikus-arteak Lurralde Historikoan hedatu eta sustatzea.

Kulturako Foru Sailarentzat lehentasunezko helburua da sormen artistikoa sustatzea zutabe sendoenetako gisa eta, jakina, gizartearen garapen intelektuala garatzeko osagai garrantzitsuenetako gisa. Sormen artistikoa egileen euren bizipenen bidez eratzen da; munduaren eta haren arazoen gainean hausnarketa eginez ideiak adierazpide plastiko eta bisual desberdinetan gauzatzen dituzte.

Artea eta sormena bikote banaezina da, ERTIBIL BIZKAIA erakusketa egituratzen duena talentu berrien sorrera bultzatzeko eta aurten parte hartu duten 108 artistaren artean aukeratutako 20 artisten lanen balioa azpimarratzeko (161 lan aurkeztu dira, guztira). Artistak aukeratu dituen epaimahaiak lanak ebaluatzeko orduan zenbait irizpide hartu dituzten kontuan, hain zuen, lanaren sormen-kalitatea, kontzeptua eta berrikuntza eta erresoluzio formala. Epaimahaikideak, berriz, Zuhar Iruretagoiena, Rita Sixto, Alicia Fernández, Xabier Sáenz de Gorbea eta Josu Rekalde izan dira.

Aurkezpen honetaz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiet epaimahaikideei egindako lanagatik eta ERTIBIL BIZKAIA erakusketan parte hartu duten artistei; azken horiek, gainera, adoretu nahi ditut lanean jarrai dezaten, hala, guztion ahaleginari esker lortuko baitugu Bizkaia egungo sormen modernoaren erreferentzia saihetsezina izan dadin.

El Departamento Foral de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia en colaboración con la Sala de Exposiciones Rekalde y los Ayuntamientos de los municipios de Getxo, Bermeo, Lekeitio, Igorre, Larrabetzu, Santurtzi, Arrigorriaga, Ermua, Zalla y Gernika-Lumo presentan la exposición ERTIBIL BIZKAIA.

La muestra itinerante de Artes Visuales celebra en este año 2011 su XXVIII edición con el objetivo firme de apoyar e impulsar las iniciativas creativas de lo/as artistas emergentes vizcaínos/as y de los que desarrollan su actividad creativa en el Territorio Histórico, en los primeros pasos de sus respectivas trayectorias artísticas, cuando son más necesarios los impulsos que definan el futuro de los/las creadores/as, y de difundir y promocionar las artes visuales en el Territorio Histórico.

Porque para el Departamento Foral de Cultura es un objetivo prioritario la promoción de la creación artística como uno de los pilares más intensos y desde luego, de mayor importancia para el desarrollo intelectual de la sociedad. La creación artística se constituye a través de las vivencias de los propios autores (artistas), que reflexionan sobre el mundo y sus problemas materializando las ideas en diferentes manifestaciones plásticas y visuales.

Arte y creación es un binomio indisoluble que articula la exposición ERTIBIL BIZKAIA con el fin de estimular la aparición de nuevos talentos y poner en valor los trabajos de los-las veinte artistas seleccionado/as de entre lo/as 108 que han participado este año, con un total de 161 obras presentadas. El jurado seleccionador ha realizado la valoración de las obras que han concurrido en base a los criterios de: calidad creativa de la obra, concepto e innovación y resolución formal y ha estado compuesto por los siguientes profesionales: Zuhar Iruretagoiena, Rita Sixto, Alicia Fernández, Xabier Sáenz de Gorbea y Josu Rekalde.

Desde esta presentación quisiera agradecer la labor realizada por los miembros del tribunal, así como a los/las artistas que han participado en ERTIBIL BIZKAIA y animarles a éstos a seguir trabajando para que, con el esfuerzo de todos/as, Bizkaia sea considerada una referencia ineludible de la creatividad moderna más actual.

Miren Josune Ariztondo Akarregi
Kulturako Foru Diputatua
Diputada Foral de Cultura

Lan irekiak: galderak gehiago dira erantzunak baino / Obras abiertas: Más preguntas que respuestas

Edizio bat gehiago eta dagoeneko hogeita zortzigarrena da; aurten Ertibilek gora doazen bertoko egile gazteen argudio eta proposamenak jasotzen ditu, bai eta Bizkaian bere sorkuntza proiektuak garatzen dituzten gainerakoenak ere. Sormen lanari jarraitzeko prozesua erronka liluragarria da. Batik bat artistak gauza ezagunetan nabarmendu beharreko alderdi ezezagunak aurkitzen dituenean, Ernesto Sábato idazleak aipatzen zuen bezala. Artelanek bidezidorrak jorratzen dituzte, arakatu gabeko eremuak argitzen dituzte, inork egiaren jabetza ez duen lekuetako misterioak iragazkor bihurtzen dituzten nozioak agerrarazten dituzte. Mundua modu konplexuan ikusteko balio duten lanak dira, sentsibilitatearekin eta atsegintasunik gabe, adimena zorroztuz eta hausnarketa piztuz: galderak gehiago dira erantzunak baino, ia beti bezala. Arteak muga deserosoa izan behar du. Haren helburua da toki komunetatik urruntzea, ezezaguna aztertzeko eta pertsonalera iristeko modu kritiko eta zalantzagarrian. Zeregin horrek munduaren ikuspuntua aldatzea ahalbidetzen du, munduaren ezagutza prozesatzen jarraitu beharra baitago ekarpen berri bakoitzarekin.

"Katamalo" maskara bat da, sarri askotan ez garena irudikatzeko premia dela-eta aurpegia aldatzeko balio duena. Horixe da lehendabiziko sariaren izenburua ere, mihisearen gaineko oilo pintura bat, Alain M. Urrutiak (1981) eginikoa. Bizkarra ematen ari den emakumezko bat eta haren gainean ortogonalki etendako eremu baten bilbea gainezartzen da. Sareta horren gainean irudia azaltzen da eta irtenbide plastikoa egituratzeko abiapuntu bihurtzen da. Formatu handiaren neurrietara iristen den esperientziadun ariketa baten hasieraren gisakoa da. Ordena horretan misterio iluna biltzen da modu ez-objektiboan sortzen da. Muga zehatzen eta hedatzen den amildegiaren arteko tentsioa ageri da. Geometriaren eta irudiaren arteko erlazioa, proiektuaren eta azken emaitzaren artekoa. Portaera ikonikoaren azterlan geldoa, Gerhard Richter-en atlasen ildoan kokatzen dena. Sentsibilitatea eta hausnarketa agerian jartzen dituen koska estuagoa, betiere zerbaitek ihes egin duelako ziurgabetasuna bizi den egoera bihurtzean. Paletaren murrizketak norabide berean jarduten du eta misterio baten sekretu eta susmorako ohitura proposatzen du. Asepsiak saihesten duen neutraltasun hotzetik urrutiratzen den ezezaguna nabarmentzeko interesa dauka. Piktorikoaren azterketa ospatzen du, pultsioak bizi diren egunerokotasuna.

Bigarren saria Miriam Isasi (1981) eta Unai Requejorena (1982) da; "Lo dejaron así" haien bideoak errealitate suntsitzaile baten fikzioa erakusten du. Akzioak Txinako Beijing-eko jolas parke baten utzikeri egoera jartzen du agerian. Dokumentuak instalazioak korritzen ditu Disney-ren sagako maskota diren Micky eta Minnie-ren eskutik. Irudi horiek nostalgia sentimentala eta parodia ez ezik umorea ere islatzen dute. Sentsazio horiek indartzen dira poztasunetik malenkoniarako bilakaera duen soinu banda bati esker. Artelan honek sekuentziak kateatzen ditu, ikono bihurtutako pertsonaien itxaropen eta aspergarritasuna azalduz, aisialdi eta ikuskizun munduko mito faltsuen inguruan hausnartu ahal izateko.

"Paisaia-Hiria (We've finished starting but never start finishing", lanarekin hirugarren saria lortu duen Manu Urangak (1980) egunerokotasunaren mitologia bat proposatzen du artista gisa duen identitateari eta eskuratuz doan ezagutzari men egiten dieten zenbait adierazpideren bitartez. Artxibo modura aurkezturik, instalazioa irudiek eta esku liburu batek osatzen dute. Amaierarik gabeko prozesu bati jarraitzeko baliagarri zaizkion ikus eta testu lanabesak dira. Aipuak, marrazkiak, proiektuak, historiari eta pentsamenduari buruzko erreferentziak modu gorabeheratsuan eta modu ordenatuan aurkezten dira, horman proiektatzen diren diapositiben sekuentzia batek eta ohar azkarreko liburu batek lagunduta. Artea izatearen eta bertan egotearen konplexutasunari buruzko begirada.

Haututako lanen artean, Nadia Barkateren (1980) argazkiak jirafa baten ezusteko zatia proposatzen du. Errealitate bat modu "zatituan" azaltzen du, gorputzaren estaldura adierazgarria eginez. Irudiak animaliaren azala eskaintzen du kolore mapa modura eta kanpora agertzen den zerbaiten dardararekin: hexagono baten

Una edición más y van veintiocho, Ertibil acoge los argumentos y las propuestas de los autores más jóvenes y emergentes del País, así como las de otros que desarrollan sus proyectos creativos en Bizkaia. El proceso de seguir el trabajo creativo siempre es un reto que resulta fascinante. Sobre todo cuando el artista encuentra en lo conocido aspectos inéditos que revelar, como venía a indicar el escritor Ernesto Sábato. Las obras abren senderos, iluminan espacios no explorados, sitúan nociones que permeabilizan misterios donde nadie tiene el patrimonio de la verdad. Son trabajos que sirven para mirar el mundo de modo complejo, con sensibilidad y sin complacencia, agudizando la mente y generando reflexión: Más preguntas que respuestas, como casi siempre. El arte tiene el deber de ser un límite incómodo. Su objetivo es alejarse de los lugares comunes para hurgar en lo inédito y llegar a lo personal de una manera crítica y cuestionadora. Una función que permite cambiar la percepción del mundo, cuyo conocimiento hay que seguir procesando con cada nueva aportación.

"Katamalo" es una máscara que sirve para mudar de rostro ante la necesidad en muchas ocasiones de aparentar lo que no se es. También es el título del primer premio, un óleo sobre lienzo de Alain M. Urrutia (1981). Una mujer de espaldas sobre la que se superpone la trama de un espacio pautado ortogonalmente. Rejilla sobre la que habita la representación y que semeja el punto de partida para estructurar una solución plástica. Es como el inicio de un ejercicio cuya experiencia alcanza las dimensiones del gran formato. Un orden con el que se envuelve el misterio que es oscuro y surge de modo no objetivo. La tensión entre límites precisos y el abismo de lo que se expande. La relación entre geometría y figura, proyecto y resultado final. Pautado estudio del comportamiento icónico que se sitúa en la línea del Atlas de Gerhard Richter. Vuelta de tuerca que manifiesta sensibilidad y reflexión al convertir una situación donde habita la incertidumbre de algo que se escapa. La restricción de la paleta actúa en la misma dirección y propone el hábito de la sospecha y secreto de un misterio. Tiene el interés de revelar algo incierto que se aleja de la fría neutralidad cuya asepsia evita. Celebrando el análisis de lo pictórico, una cotidianeidad habitada de pulsiones.

Los segundos premiados son Miriam Isasi (1981) y Unai Requejo (1982), cuyo vídeo "Lo dejaron así" muestra la ficción de una realidad desoladora. La acción presenta el estado de abandono en el que se encuentra un parque de atracciones en Beijing, China. Documento que recorre las instalaciones de la mano de Micky y Minnie, dos de las mascotas de la saga Disney. Unas imágenes envueltas en claves de nostalgia sentimental y parodia no exenta de humor. Sensaciones que se refuerzan con una banda sonora que evoluciona de la alegría a la melancolía. Una obra que encadena secuencias donde la esperanza y el aburrimiento de los icónicos personajes sirven para reflexionar sobre los falsos mitos del ocio y el espectáculo.

Con "Paisaia-Hiria (We've finished starting but never start finishing", Manu Uranga (1980), tercer galardonado, propone una mitología de la cotidianeidad a través de una serie de manifestaciones que aluden a su identidad como artista y al conocimiento que va adquiriendo. Presentándose con el carácter de archivo, la instalación está compuesta por imágenes y un cuaderno de mano. Son como los instrumentos visuales y textuales que le sirven para continuar un proceso que no tiene fin. Citas, dibujos, proyectos, referencias a la historia y al pensamiento que se presentan, tanto azarosa como ordenadamente, con un libro de rápidos apuntes y una secuencia de diapositivas que se proyectan en la pared. La mirada de la complejidad de ser y estar en el arte.

Entre las piezas seleccionadas, la fotografía de Nadia Barkate (1980) propone el sorpresivo fragmento de una jirafa. El descubrimiento de una realidad cuyo "cuarteado" es como un expresivo enmascaramiento corporal. Una imagen que ofrece la piel del animal como un mapa de colores y con la vibración de algo

irudia gainerako orban gorabeheratsuen artean kokatzen dena. Esperientzia aurkezten da bizitza organikoaren eta espazioa ordenatzen eta neurtzen duen patroi baten geometriaren artean. Itxuraz anodinoa da, baina exotikoa, eta senarekin eta basatiarekin identifikatzen da eta horrek naturara begiratzeko proposamena egiten du, forma artistikoen begi berriekin.

Juan de la Rica-ren (1979) "El Descubrimiento de la Paternidad: Matriarcado, Matrilinaje, Familia y Patriarcado" lana collage digital bat da. Masen kulturaren ildoari jarraitzen ditu eta itxura erakargarria du, baina ihesbide ludiko hutsetik urruti, gai konplexu eta zehatzgaitzak jorratzen ditu. Irudien digitalizazioaren bitartez, ikonorik harrigarrienekin konposa dezake. Hala eta guztiz ere, elektronikaren erraztasunetatik urruntzen da, nekez jorra daitekeen tematika baten menpean jartzea. Familiarteko gaiak eta gizarte jardunbideko rolak hartzen ditu bere gain, objektu arruntei eta artearen historiari men egiten dieten landa eta teknologi eszenen bitartez. Iraganetik orainera arte lekualdatzen den istilu eta moldaketa.

Larrutzea ekintza bat da, ageri-ageriko giltzarri metaforiko nahiz fisikoak dituena. Tokio eta Bllboren arteko bidaia ezabatzen eta berritzen den memoria bat da, zenbait animaliaren azalaren antzera. Saray Blades-en (1984) irudiek pertsonala eta kolektiboa biltzen dute, ekialdeko nahiz mendebaldeko erreferentziak, eremu baten barrualdearen gorputz egitura eta hiri handi-handiaren zabala. Itxuraz zerikusirik ez duten baina haiku baten olerkigintzaren antzera kateatzen diren zatien fusio bat da, izenburuak berak azaltzen duenez: "Action Urban Haiku".

"My Bad, My Good" Usoa Fullaondoren (1979) triptiko bat da, zatika osatutako narratibotasuna aurkezten duena. Paperaren gaineko akrilikoa, argazkia eta collage dira enigmatikoki nahasten diren prozedurak eta kodeak dira, ikusezko eta testualaren arteko elkarrizketarako gailu legez. Antzeztokietan izaten diren oihal handien antzera, gortina gorri batek ezin igar daitekeen zerbaiten presentzia iradokitzen du. Horren ondoren, haurtzaroko gomuten fantasiak kolore alaiak ditu eta espazioa inguratzen duen globo erraldoia erakusten du. Azkenik, iluntasuna baso baten irudiaz jabetzen da, moldeko hizki sendoak erabilita lurrean uzten den izenburuaren esaldiarekin batera. Esperientziaren dikotomia agertzen da onaren eta gaizkiaren arteko liskar dialektikoan. Ez da harridurarik, ez murmuriorik, bakar-bakarrik istorio askotarako aukera ematen duen bidaia baten protagonismo apala.

Álvaro Gilek (1986) egurrez, pintura akrilikoz eta Ikeako mahai batez egindako eskultura brikolajearen hibrido bat da, eskultura karikatura baten sentsazioa sorrarazten duen gehiegikeria zakarrak osatua. Parodia hau aski deserosoa da, tramankulu ludikoa. Ematen du artelana sortzen dela ezin erabil daitekeen ezerekin uztartzeko moduko ezaugarri funtzionalak dituen tramankulu batetik. Obra deriba kritiko batean kokatzen da, Richard Artschwager-en ildoko umore kutsuarekin; horrek nolabaiteko nahasmendua sortzen du eta Euskal Herriko eskultura mota baten irtenbide formalistak arazo bihurtzen ditu.

Abian González-en (1987) lan tridimentsionalak eroritako bandera edo pankarta baten ukitua dauka. Materialek sentsazioak eta ezaugarri plastikoak ematen dituzte, baina, era berean, asma daitekeen naufragio baten prozesua osatzen dute. Aztarnak utzi dituen fluxu baten hondakinak. Plataforma baten gainean egurrezko egitura bat altxatzen da, banda urdin ordenatuekin. Haren ondo-ondoan, listoi bati klabeatutako oihal tenkatu bat askatu dela eta lurrera ziplo erori dela ematen du. Igarobidean dagoen ataza baten ideia sustatzen duten erlazio tirabiratsuak azaltzen dira.

Hiru euskarri behar dira egitura bat altxatzeko eta toki bat menderatzeko. Edu Hurtadok (1986) erabili dituen makila luzeak erabiltzen jarrai daiteke. Aldi baterako loturik dauden eta "tepee" baten egitura osatzen duten objektuak dira, sendoa eta behin betikoa ematen ez duen ahokagailu baten bitartez. Lana Richard Serraren "House of cards" obraren antzekoa da, haren zatiak ere bata bestearen gainean euskarritzen baitira. Iparramerikarrak pisuaren

que aflora externamente: La figura de un hexágono que se dispone entre el resto de las azarosas manchas. La experiencia que se produce entre la vida orgánica y la geometría de un patrón que ordena y mide el espacio. Algo aparentemente anodino pero exótico cuya identificación con lo instintivo y salvaje propone una mirada a la naturaleza con los ojos nuevos de las formas artísticas.

"El Descubrimiento de la Paternidad: Matriarcado, Matrilinaje, Familia y Patriarcado" de Juan de la Rica (1979) es un collage digital. Sigue la onda de la cultura de masas y tiene una apariencia atractiva, pero lejos de la mera evasión lúdica se ocupa de cuestiones complejas y difíciles de concretar. Mediante la digitalización de las imágenes puede componer con los más insólitos iconos. Sin embargo se aleja de las facilidades de la electrónica para someterse a una temática difícil de abordar. Asume cuestiones familiares y roles en el funcionamiento social mediante escenas campestres y tecnológicas, alusiones a objetos comunes y referencias a la historia del arte. Enfrentamiento y acople que se desplaza desde el pasado hasta el presente.

Despellejarse es una acción que tanto tiene claves metafóricas como físicas más que evidentes. El viaje entre Tokyo y Bilbao que es una memoria que se elimina y renueva como la muda de algunos animales. Imágenes de Saray Blades (1984) que reúnen lo personal y lo colectivo, las referencias orientales y las occidentales, lo corporal en la interioridad de un espacio y la apertura de la gran ciudad. Fusión de fragmentos que aparentemente no tienen nada que ver pero que se encadenan a la manera de la poesía de un haiku, tal y como revela el título: "Action Urban Haiku".

"My Bad, My Good" es un tríptico de Usoa Fullaondo (1979) que plantea una narrativa compuesta por fragmentos. Fotografía, collage y acrílico sobre papel son procedimientos y códigos que se entrecruzan enigmáticamente, como dispositivo para el diálogo entre lo visual y lo textual. Como la de los grandes telones que existen en los escenarios teatrales, una cortina roja ausculta la presencia de algo que no puede percibirse. Después, la fantasía de los recuerdos infantiles tiene alegres colores y muestra a un enorme globo que circunda el espacio. La oscuridad se adueña finalmente de la imagen de un bosque junto a la frase del título que se deposita en el suelo con sólidas letras de molde. La dicotomía de la experiencia a través del dialéctico enfrentamiento entre lo malo y lo bueno. No una exclamación ni un susurro, sino el lacónico protagonismo de un viaje donde transcurre la posibilidad de muchas historias.

Hecha en madera, pintura acrílica y mesa de Ikea, la escultura de Álvaro Gil (1986), es un híbrido bricolaje, cuya tosca exageración de máquina genera la sensación de caricatura escultórica. Una parodia que tiene algo de incómodo y lúdico artefacto. Parece proceder de algún aparato cuyas cualidades funcionales no parecen casar con nada que pueda usarse. La obra se instala en una deriva crítica con un humor a lo Richard Artschwager que genera una cierta confusión y problematiza las soluciones formalistas de cierta escultura vasca.

El trabajo tridimensional de Abian González (1987) tiene algo de bandera o de pancarta caída. Materiales que aportan sensaciones y cualidades plásticas, pero que también conforman un proceso cuyo naufragio parece aventurarse. Los restos de un flujo del que apenas quedan las huellas. Sobre una plataforma se levanta una estructura de madera que contiene unas ordenadas bandas azules. A su lado una tela claveteada a un listón parece desprenderse con cierta tirantez y cae desplomada en el suelo. Una serie de tensas relaciones que promueven la idea de una labor en estado de tránsito.

Son tres los puntos de apoyo que se necesitan para elevar una estructura y dominar el lugar. Los largos palos que ha utilizado Edu Hurtado (1986) pueden seguir siendo utilizados. Son objetos que están unidos transitoriamente y forman la estructura de un "tepee" mediante un acople que no parece sólido ni definitivo. El trabajo es como el "House of cards" de Richard Serra, cuyas partes también se apoyan las unas en las otras. Mientras el norteamericano propicia la inestable

sentsazioak eragiten duen txapen batasun ezegonkorra ahalbidetzen du eta orekaren hauskortasuna erakusten du; kasu honetan, aldiz, tresna luze batzuen erabilera proposatzen da, arintasunaren sentsazioa eraginez. Zurezko langen gisakoak dira eta jatorrizko eraikin baten barrualdea mugatzen dute. Ezagutza, segurtasun eta nagusitasunerako bidea.

Irune Jiménez Orbearen (1976) "En cualquier otro sitio" argazkiak bi kode desberdinen arteko elkarrizketa eta tentsioa eskaintzen ditu. Paisaia baten ukiezinaren ezagutzaren eta toki horretan altxa daitekeen neurriaren arteko erlazioa. Naturalaren eta artifizialaren arteko dialektika ageri da, eguratsaren erdian plano arkitektoniko baten muga jasotzen duena. Itsas horizonte baten behaketan sakontzen da, airean kulunkatzen den gela baten muga pribatuetan murgiltzen den begiradarekin.

Torimbia Asturiasen dagoen hondartza nudista bat da, eta "Torimbia Beach" Ibai León Azkaratek (1980) asmatutako irudi eta testu baten errealitatearen eta fikzioaren artean kokatzen den proposamen plastikoa. Desioa sublimatzen duen kartel antzeko bat. Irudikapen mental baten sugestioa, lasaitasun, bake eta baretasun zirrarak sorrarazten dituena. Toki baten paradisu bakardadea, hondar distiratsu trankilean eta olatuen etorrera etengabe baten aurrean kokatzen gaituena. Bien bitartean, palmerek argia iragazten dute eta eszenari freskotasuna ematen diote: irudikapena amestutako gunearekin bat etortzeko bide ematen duen exotismoa.

Egunero erabiltzen diren gauzekin gertatzen den legez, askatasunaren abenturak berekin dakar hausteko arriskua. Horixe da, hain zuzen ere, Maite Leyun-en (1986) bideoaren protagonistak irristatzen duen zeramikazko monopatinari gertatzen zaiona. Ekintzak hiri eta industri eremuetan izaten diren hamaika eroriko eta hamaika ahaleginetariko bat erakusten du. Kale kultura baten bizimodua azaltzen da eta haren mugak etenda geratzen dira aldi batez eta behin-behinean. Jarraitzeko ahaleginak amaierarik gabeko erronka dira.

Ion Macarenok (1980) paper eta zuraren gainean egindako inpresioak erakusten den erakusketariaren zerbait duela esan daiteke. "Algo me dice que la batalla va a ser fiera" artelanak ikuslearen bila abiatzen den obra eszenikoa da. Erakutsia izateko kontzientzia duen objektua, ikusteko bidea egiten duena. Eskulturaren eta argazkiaren bateragunean elkarrizketa dago bolumenen zehaztapenaren eta torero baten gelaren oroimenaren artean. Torero jantziaren kokapenaren estatismoa materiaren bihurgune tenkatuekin lehiatzen da. Lana modu limurtzailean altxatu eta zutitzen da, baina, era berean, lurraren ondoko zirrikitu eta irekiduren unibertso ezkutua ere biltzen du. Duelu edo jaiaren arteko anbiguotasuna, lehenago urduria eta geroago etsigarria. Zuri eta beltzezko eremua; eremu horren denbora arazo bihurtutako erituala da.

Silvia Ocejok (1981) piktorikora iristen den ilustrazio baten proposamena egin du. Eremu isilaren erdian dilindatzen diren ikus apunteen partitura baten modukoa da. Hutsunearen inguruan gazte talde baten bilakaeraren aldi baterako lekualdaketa dago eta ondorengo bakardadea. Toki batetik besterako lekualdaketaren oroimenak azaltzen dira. Figuretara hurreratzen da eta paisaiatik banantzen. Igarobide hori apuntearen sinplifikazioan tolesten da eta txikiaren intimitatean.

Jon Otamendiren (1978) bideoak ezkutuaren zurrumurru sekretua hartzen du. Planteamendu hori soinuan azaltzen da, bai eta ilun eta zeharrargitsu nahiz plastifikatu eta distiratsu agertzen diren muga batzuen mugimenduetan ere. Ekintza hori burrunba baten kontzientzian edo partzialki objektibatzen diren alkandoren eta gorputz zatien irudi estatiko eta zatizkoetan agertzen da, hala nola esku edo sama batean, bai aurretik bai atzetik. Sekuentziak oso geldoak dira ikusten ari dena aztertzen duen begirada hurbilari dagokionez, hau da, hori antzematen duen burmuinean bilakaera sorrarazten duen begirada hurbilari dagokionez. Misteriotik elikatzen den arruntaren irrika. Irudia moteltzen duen zuriaren gaineko zuria. Ez da ezer argia edo zehatza denik, baizik eta larritasunaren erdian jarduten duen konnotazio zama.

unión de chapas que provoca la sensación del peso y muestra la fragilidad del equilibrio, en este caso se propone el uso de unos instrumentos alargados que provocan la sensación de levedad. Son como pértigas de madera que delimitan el espacio interior de una construcción primigenia. Un camino de conocimiento, seguridad y dominio.

"En cualquier otro sitio", la fotografía de Irune Jiménez Orbea (1976), ofrece el diálogo y la tensión entre dos códigos diferentes. La relación entre el reconocimiento de lo impalpable en un paisaje y la medida de lo que puede levantarse en el lugar. Dialéctica entre lo natural y lo artificial cuyo pensamiento acoge, en medio de la atmósfera, la acotación de un plano arquitectónico. Penetrando en la contemplación de un horizonte marino, mirada que se sumerge en los privados límites de un habitáculo suspendido en el aire.

Torimbia es una playa nudista que está en Asturias, y "Torimbia Beach" es una propuesta plástica que se sitúa entre la realidad y la ficción de una imagen y un texto concebidos por Ibai León Azkarate (1980). Una especie de cartel en el que se sublima el deseo. La sugestión de una visualización mental que provoca sensaciones de sosiego, paz y tranquilidad. El espíritu de unas vacaciones al aire libre y en la naturaleza. La paradisíaca soledad de un lugar que nos sitúa en la paciente arena dorada y delante de la incesante llegada de las olas. Mientras tanto las palmeras filtran la luz y dotan de frescor a la escena: Un exotismo que hace percibir la confluencia de la representación con el espacio soñado.

Como ocurre a las cosas que se utilizan cotidianamente, la aventura de la libertad conlleva el peligro de romperse. Es lo que sucede al monopatín de cerámica por el que se desliza la protagonista del vídeo de Maite Leyun (1986). La acción muestra el repetitivo intento y las enésimas caídas que se producen en escenarios urbanos e industriales. El modo de vida de una cultura callejera cuyos límites quedan suspendidos, momentánea y puntualmente. El esfuerzo por continuar es un desafío que no tiene final.

La impresión sobre papel y madera de Ion Macareno (1980) tiene algo de expositor que se exhibe. "Algo me dice que la batalla va a ser fiera" es una obra escénica que sale al encuentro del espectador. Objeto con conciencia de ser mostrado y de cómo puede verse. En la confluencia entre lo escultórico y lo fotográfico se produce el diálogo entre la concreción de los volúmenes y la memoria de la habitación de un torero. Una disposición de la ropa de luces, cuyo ordenado estatismo rivaliza con las atirantadas curvas de la materia. Trabajo que emerge y se yergue seductoramente pero que también reúne el universo oculto de rendijas y aberturas junto al suelo. La ambigüedad entre el duelo o la fiesta, el nervioso antes o el desesperante después. Un espacio en blanco y negro cuyo tiempo es un ritual que se problematiza.

Silvia Ocejo (1981) propone una ilustración que se eleva a lo pictórico. Es como una partitura de apuntes visuales que están suspendidos en medio del espacio silencioso. En torno al vacío, el desplazamiento temporal del devenir de un grupo de jóvenes y la soledad posterior. Los recuerdos de la traslación de una a otra parte. El acercamiento a sus figuras y la separación del paisaje. Un transcurso que se repliega en la simplificación del apunte y la intimidad de lo pequeño.

El vídeo de Jon Otamendi (1978) acoge el secreto rumor de lo oculto. Planteamiento que se manifiesta con el sonido y en los movimientos de unos límites cuyas lonas se muestran tanto opacas y translúcidas como plastificadas y brillantes. Una acción que transcurre entre la conciencia de un zumbido o imágenes estáticas y fragmentarias de camisetas y fragmentos corporales que se objetivan parcialmente, como una mano o un cuello, por delante y por detrás. Secuencias muy lentas para una mirada próxima que ausculta lo que se ve y que provoca derivas en la mente de quien lo percibe. La pulsión de lo común que se alimenta de misterio. Un blanco sobre blanco que ralentiza la imagen. No hay nada nítido ni explícito, sino la carga connotativa que opera en medio de la zozobra.

Mikeldi Pérez Urkijoren (1983) margolana sprayz eginda dago. Lanak makinaren zehaztasuna dauka eta ospakizun baten zirrara. Tonu meheen jolasa ageri da eta azaleraren planoa gainditzen da, ezagutua izan nahi duen ikurra ager dadin. Espazioan desagertzen den ikurrin baten antzekoa da; bien bitartean, koloreak galduz doa eta zati batzuk ere. Diseinua zehatza da eta neo-geo-a, baina, aldi berean, suntsikorra eta zorrotza. Ikusten den planoan pintura dago, bai eta atzetik errematatzen den falkan ere. Horma inplikatzen duen emultsioaren kromatismoa, haren gainean pixkanaka proiektatzen dena, ezusteko pertzepzioak eta sentsazioak sortuz. Liparraren iraupen ñabartua, erditik kanpora hedatzen dena.

Jon Mikel San Millánen "Cuadrados" artelana irudi bat da eta haren pertzepzioa argazkigintza piktorialistaren mugan aurkitzen da. Dagoen eta ez dagoen zerbaiten adierazpena igartzea ahalbidetzen duen artelana da. Sentsazio espaziala ikusmenekoa da, baina horrek ikusteko esperientzia arazo bihurtzen du argi egoera ilunean. Distantzian sortu eta ezerezaren erdian flotatzen den Ikuspen txikia dago. Itzalen artean denboraren joanari aurre egiten dioten bloke arkitektonikoak ageri dira.

"Gedächtnis'1" artelanean Lander Telletxeak (1979) hamasei akriliko txikiren nahasketa erakusten du. Bide piktoriko eta jarraibide kromatiko horiek baliagarriak dira oroimenaren, gomutaren eta gogorapenaren bidea jorratzeko. Jazokizun baten bilakaera eta aldaketa prozesu baten etenaldia ageri dira, elementuen nahasketa eta trukaketa. Zirrara desberdinen misterioak harrapatzea da gakoa. Sintesia eta eskematismoa.

"Movimiento nº 3" obra lantzeko erabilitako paperaren erliebea erabakigarria izan da trazuak egiteko orduan. Hori dela eta, Diego Vivanco (1988) artistak bere esperientzia kokatzen du marrazketaren eta eskulturaren eremu bikoitzean. Urrutitik zimurrak agerian dituen paper baten gaineko sare grafikoa besterik ez da antzematen. Kaligrafiaren eta euskarriaren arteko elkarrizketa dago, kasualitate edo ezustekotik harago. Egilearen borondatearen ondorioa eta perfektua edo laua ez den materialaren zirkunstantzia lotzen dira eta horrek tolesdurez betetako azalera baten klimaxa eskaintzen du. Ez da berriaren baieztapena, baizik eta aldez aurretikoaren erabilera. Planoan inskribatutako ikurrak etengabeko ariketa batetik datoz eta egilearen pultsu adierazkorra egiaztatzen dute. Erakustaldi lineala da, norabide guztietan hedatzen dena Pollock-en "all over" baten antzera. Zulagarritasuna eta sakontasunerako sarbidea saihesten dituen irudikapena. Dekorazioaren ostrazismora zigortutako jardunen aldean, materialen pobreziatik aldentzea proposatzen du eta zuzenaren eta eskematikoaren ikus nahasmenaren alde egiten du.

El cuadro de Mikeldi Pérez Urkijo (1983) está hecho con spray. Trabajo que tiene la precisión de la máquina y la emoción de una celebración. Apenas un juego de sutiles tonos y la superación del plano de superficie para que aparezca un signo que pide ser reconocido. Semeja a una ikurriña que se desvanece en el espacio, mientras va perdiendo los colores y hasta algunas partes. El diseño es concreto y neo-geo, pero también evanescente y sutil. Hay pintura que se encuentra en el plano visible pero también existe en la cuña que se remata por detrás. Cromatismo cuya emulsión implica al muro y se proyecta levemente sobre él, provocando percepciones y sensaciones inéditas. Una matizada duración del instante que se expande del centro hacia fuera.

"Cuadrados" de Jon Mikel San Millán (1985) es una imagen cuya percepción se encuentra en los límites de la fotografía pictorialista. Obra que permite percibir la expresión de algo que está y no está. Una sensación espacial que es visual pero que también problematiza la experiencia de mirar en unas apagadas condiciones lumínicas. La escasa visibilidad de lo que surge en la distancia y que está como flotando en medio de la nada. Entre las sombras quedan envueltos unos bloques arquitectónicos que desafían al paso del tiempo.

En "Gedächtnis'1", Lander Telletxea (1979) ofrece la conjunción de dieciséis pequeños acrílicos. Unos semejantes modos pictóricos y pautas cromáticas que sirven para reconocer el camino de la conmemoración, la memoria, el recuerdo y la retentiva. La deriva de un acontecer y la congelación de un proceso de variación, combinación y permutación de elementos. Al unísono se trata de atrapar los misterios de sensaciones diferentes. Síntesis y esquematismo.

El relieve del papel sobre el que se ha trabajado "Movimiento nº 3" ha sido determinante a la hora de ir realizando los trazos. Es por lo que el artista Diego Vivanco (1988) sitúa su experiencia en el doble campo del dibujo y lo escultórico. De lejos sólo se percibe una maraña gráfica sobre un papel cuyas arrugas resultan evidentes. Un diálogo entre la caligrafía y el soporte que es algo más que mera casualidad o descuido. La conjunción entre lo que es consecuencia de la voluntad del autor y la circunstancia de un material que no es perfecto ni está liso y ofrece el clímax de una superficie que está llena de pliegues. La afirmación no de lo nuevo sino del uso de lo preexistente. Los signos inscritos en el plano provienen de un ejercicio continuo y certifican el pulso expresivo del autor. Una demostración lineal que se extiende en todas direcciones a la manera de un "all over" de Pollock. Representación que impide la penetrabilidad y el acceso a la sensación de profundidad. Frente a las prácticas condenadas al ostracismo de la decoración, propone el distanciamiento de la pobreza material y la confusión visual de lo directo y esquemático.

Xabier Sáenz de Gorbea

Ibilbidea / Itinerario

BILBAO
Rekalde Aretoa
Maiatzaren 26tik Uztailaren 3ra arte

ALGORTA
Torrene Aretoa
Uztailaren 6tik 31ra arte

BERMEO
Udal Erakusketa Aretoa
Abuztuaren 9tik 21era arte

LEKEITIO
Barandiaran Aretoa
Abuztuaren 22tik 31ra arte

IGORRE
Udal Erakusketa Aretoa
Irailaren 1etik 14ra arte

LARRABETZU
Anguleri Jauregiko Udal Erakusketa Aretoa
Irailaren 16tik Urriaren 2ra arte

SANTURTZI
Udal Erakusketa Aretoa (Casa Torre Jauregia)
Urriaren 4tik 16ra arte

ARRIGORRIAGA
Arrigorriagako Udal Erakusketa Aretoa
Urriaren 18tik 30era arte

ERMUA
Lobiano Kultur Gunea
Azaroaren 2tik 16ra arte

ZALLA
Udal Erakusketa Aretoa
Azaroaren 18tik 30era arte

GERNIKA-LUMO
Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa
Abenduaren 2tik 29ra arte

ARTISTA SARITUAK - ARTISTAS PREMIADOS

ALAIN MARTINEZ URRUTIA

Bilbao, 1981

Bilbon bizi eta lan egiten du

Arte Ederretako lizentziatua - UPV-EHU

GOAZEN TXINARA egoitza beka, MA Studio Beijing, Txina (2011)
Bizkaiko FOru Aldundiaren ekoizpen beka (2010)
ROGALAND ART CENTRE DE STAVANGER-ekin izandako trukaketa beka (NORVEGIA) (2008)

Haren pinturaren ezaugarria da eguneroko egoera tipikoak berrikuspen artistikorako gai bihurtzea, aldez aurretik haien gaia direla-eta hautatuak izan ez diren une batzuei berriro ere balioa emanez. Horrela, pinturak adierazgarritasuna lortzen du eta argazkigintzak egunerokotasuna erregistratzeko oinarri gisa daukan hoztasunetik urruntzen duten amets aukerak azaltzen dira.

Vive y trabaja en Bilbao

Licenciado en Bellas Artes- UPV-EHU

Beca de Residencia GOAZEN TXINARA, MA Studio Beijing, China (2011)
Beca de Producción Diputación Foral de Bizkaia (2010)
Beca de Intercambio con el ROGALAND ART CENTRE DE STAVANGER (NORUEGA) (2008)

Su pintura se caracteriza por convertir situaciones típicamente cotidianas en objeto de revisión artística, formulando algo así como una revalorización estética de algunos instantes que para nada han sido elegidos de antemano por su condición temática. La pintura adquiere un carácter revelador, de ciertas posibilidades ensoñadoras que la alejan de la frialdad del elemento fotográfico como base de registro de lo cotidiano.

KATAMALO
Olioa mihise gainean / Oleo sobre lienzo
200 X 250

Gizateria hondamenditik nola salbatu dakiela pentsatzen duenak bere aurrean izango du denbora partzialean bete ezin izango duen zeregina. Nolanahi ere, asko dira artegintzaren eta ekintza politikoaren arteko eremuan flota daitekeela uste duten pertsonak.

H. Rosenbert/R. motherwell

Ez zan gauza bera aurpegi bat zirriborratzea eta kaputxa bat janztea , inoiz pintatua izan ez den aurpegia ezabatzea ez den bezala.

Quien crea que sabe cómo salvar a la humanidad de la catástrofe tiene ante sí una tarea qeu ciertamente no podrá cumplir a tiempo parcial. Son, sin embargo, muchísimas las personas que consideran posible flotar en le espacio entre el arte y la acción política.

H. Rosenbert/R. motherwell

No fué lo mismo tachar una cara o ponerse una capucha, como tampoco lo es borrar la cara que nunca fué pintada.

MIRIAM ISASI ARCE
Vitoria-Gasteiz, 1981

Nire lanak behin-behinekoaren, ezegonkorraren edo biziraupenaren gisako terminoetan jartzen du arreta.
Sarritan ikerlanak egiten jarduten du; 2007tik modu paraleloan doktorego tesia egiten aritu da eta tesi horretan aldi baterako autoeraikuntzari edo aterpe zentzuari buruzko gaiak jorratzen dira, bizia berresteko premia gisa. Nire lanak maiz instalazio modura aurkezten dira edo erakusketaz bestaldeko testuinguru batean garatutako proiektu baten agiri fotografiko, ikus-entzunezko edo irudi modura.

Mi trabajo se centra en términos como lo temporal, lo inestable o la supervivencia.
A menudo articulo práctica con investigación; desde 2007 desarrollo de forma paralela una tesis doctoral que trata temas como la autoconstrucción temporal y el sentido de refugio como necesidad de reafirmación vital. Mis trabajos habitualmente se presentan como instalaciones, o como documento fotográfico, audiovisual o ilustrado, de un proyecto desarrollado en otro contexto al de muestra.

UNAI REQUEJO MEZO
Santurtzi, 1982

Gehien motibatzen nauten eremuak aisialdia, turismoa eta ludikotasuna dira. Umorea garrantzi handikoa iruditzen zait. Nire lanak egiteko, bideoa, argazkiak eta marrazketa erabili ohi ditut,b ai eta soinu eta musika ere, batzuetan instalazio interaktiboak eginez. Bestelako formatu batzuk ere gustuko ditut, hala nola dokumentala, bideoklip musikalak eta liburuak. Gaur egun, doktorego tesi bat egiten nabil jolasaren inguruan eta horrek sorkuntza artistikoarekin duen erlazioaren inguruan.

El ocio, el turismo y lo lúdico son los ámbitos que más me motivan. El humor me parece algo importante. Para mis obras suelo utilizar vídeo, fotografías y dibujo, así como sonido y música, a veces en instalaciones interactivas. También me gustan formatos como el documental, videoclips musicales y libros. Actualmente estoy realizando una tesis doctoral que gira en torno al juego y su relación con la creación artística.

LE DEJARON ASÍ
Bideoa / Video

"Parke hau; orain dela hogei urte Estatu Batuetako Disneyworld enpresak hiru Disney parek eraiki nahi izan zituen Txinan: bat Shanghai-n, beste bat Hong Kong-en eta hirugarrena Beijing-en. Baina, Beijing-ekoa geldiarazi zuten, hiritik oso urrun dagoela eta haurrak ezin zirela etorri esaten dutelako, eta halaxe utzi zuten.
Gringoek lurra erosi eta 50 urterako alokatu zuten; 50 urteko kontratu hau amaitzen denean, lurra herriko nekazariei itzuli beharko zaie eta Disneyworld-ek Beijing-ekin duen gaia bukatuko da, baina Hong Kong eta Shanghai-koa eginda dago; horixe da toki horren historia."
Beijing-eko aldirietan erdi eraikita bertan behera utzita dagoen parke tematikoa da bideo honen eszenatokia. Eremu horretan bi pertsonaia bizi dira, sekula iristen ez den jai baten zain; hori dela eta, goibel daude, asperturik. Ondo pasatu nahi dute, baina nahi hori uneoro zapuzten da. Ukitu melankoliatsua nagusitzen da.
Kamerarentzat egindako performance gisa, proiektuak zenbait gai jorratzen ditu, hala nola mitoaren gainbehera, isolamendua eta tokiaren izaera artifiziala. Musika melodia ezagun batetik abiatzen da eta kantari moldaketak egin dizkiogu harmonian eta polifonian, erregistro malenkoniatsu batera alda dadin.

"Este parque; hace veinte años, la empresa de Estados Unidos Disneyworld quería construir tres parques Disney en China: uno en Shanghai, otro en Hong Kong y otro en Beijing. Pero lo de Beijing lo pararon, porque dicen que está muy lejos de la ciudad y no podían venir los niños, y lo dejaron así. Como los gringos ya compraron la tierra, que la alquilaron por 50 años, y cuando termine este contrato de 50 años, la tierra regresará a los campesinos locales, y terminará el asunto del Disneyworld con Beijing, pero lo de Hong Kong, lo de Shanghai ya está hecho, esta es la historia de este lugar."
Un parque temático abandonado a medio construir, situado a las afueras de Beijing, es el escenario de este vídeo. El espacio está habitado por dos personajes, que a la espera de una actividad festiva que nunca llega, se sienten tristes y aburridos. Quieren divertirse, pero a cada momento este deseo es frustrado. Predomina el tono melancólico.
A modo de performance para la cámara, el proyecto trata temas como la decadencia del mito, el aislamiento o el carácter artificial del lugar.
La música parte de una melodía representativa, en su origen alegre, a la que hemos hecho arreglos en su armonía y polifonía, de modo que cambia su carácter a un registro melancólico.

MANU URANGA AIZPURUA
Zumaia, 1980

(Gaztelaniaren Santillana oinarrizko hiztegia, 1999)

paisaje *s. m.* **1.** Extensión de terreno que se ve desde un punto. **2.** Técnica artística para reproducir un lugar natural o urbano, dando a la figura un papel secundario o bien prescindiendo de ella. **3.** Pintura, grabado, fotografía, etc., que lo representa. **4.** País de un abanico. SIN. 1. Horizonte, panorama, vista. FAM. Paisajismo, paisajista, paisajístico. / Apaisado /PAÍS.

ciudad (del lat. civitas, -atis) s. f **1.** Población, particularmente la de considerable tamaño e importancia, constituida por un conjunto de calles, edificios, etc., y las personas que viven en ellos, dedicadas sobre todo a actividades no agrícolas. **2.** Población no rural en general, por oposición a campo. **3.** Conjunto de instalaciones destinadas a una determinada actividad: ciudad deportiva, ciudad universitaria. // **4. ciudad abierta** La que no es objetivo miliotar en una guerra o de antemano se manifiesta que no será defendida. **5. ciudad dormitorio** La habitada fundamentalmente por población que trabaja en una urbe cercana de mayor tamaño e importancia. **6. ciudad jardín** Núcleo residencial e viviendas unifamiliares en un entorno ajardinado. **SIN. 1.** Capital, localidad, villa, metrópoli. **FAM.** Ciudadano. / Cívico, civil, civismo.

(Diccionario esencial Santillana de la lengua española, 1999)

paisaje *s. m.* **1.** Extensión de terreno que se ve desde un punto. **2.** Técnica artística para reproducir un lugar natural o urbano, dando a la figura un papel secundario o bien prescindiendo de ella. **3.** Pintura, grabado, fotografía, etc., que lo representa. **4.** País de un abanico. SIN. 1. Horizonte, panorama, vista. FAM. Paisajismo, paisajista, paisajístico. / Apaisado /PAÍS.

